



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko irailaren 13a

100. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 10-22/POR-00274. Galdera, etxeko langileen lan-erregulazio berriari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (3. or.).
- 10-22/POR-00275. Galdera, Altsasuko osasun etxeko osasun-arretari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (3. or.).
- 10-22/POR-00276. Galdera, Euskararen II. Plan Estrategikoari buruzkoa. Jabi Arakama Urtiaga jaunak egin du (4. or.).
- 10-22/POR-00277. Galdera, kontratu publiko ugari esleitzerakoan eta lan kontratazioan irregulartasunak egoteari buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (4. or.).
- 10-22/POR-00278. Galdera, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuan foruzainen aparteko orduen kopurua murrizteko hartutako neurriei buruzkoa. José Suárez Benito jaunak egin du (5. or.).
- 10-22/POR-00279. Galdera, osasungintzako itzarote-zerrendetako datu txarrei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (6. or.).
- 10-22/POR-00280. Galdera, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikolari eta autogobernuari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (6. or.).
- 10-22/POR-00281. Galdera, Nafarroako estepako hegaztiak berreskuratu eta kontserbatzeko foru dekretuaren proiektuari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (7. or.).
- 10-22/POR-00282. Galdera, klima-aldaketaren Herritar-batzarrari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (7. or.).
- 10-22/POR-00283. Galdera, energia-krisiaren konponbidean aurrera egiteko proposatzen diren neurriei eta helburuei buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (8. or.).
- 10-22/POR-00284. Galdera, ETB3 Nafarroa osoan hartzeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (9. or.).
- 10-22/POR-00285. Galdera, Gobernuaren barne fiskalizaziorako eta kontrolerako prozeduren funtzionamenduari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (9. or.).

- 10-22/POR-00286. Galdera, 2023rako hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (10. or.).
- 10-22/POR-00287. Galdera, ikasturtearen hasieraren gaineko balorazioari buruzkoa. Jorge Aguirre Oviedo jaunak egin du (10. or.).
- 10-22/POR-00288. Galdera, Hezkuntza Departamentuak Nafarroan 0tik 3 urtera arteko ikasleei kalitateko hezkuntza zerbitzua bermatzeko egiten dituen jarduketei buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (11. or.).
- 10-22/POR-00289. Galdera, Foruzaingoari Trafikoa eskualdatzeko negoziazioei buruzkoa. Blanca Regúlez Álvarez andreak egin du (11. or.).
- 10-22/POR-00290. Galdera, ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxe pribatuekiko ituntzeari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (12. or.).
- 10-22/POR-00291. Galdera, egoera zaurgarrian dauden pertsonen inflazioa leuntzeko neurriei buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (13. or.).
- 10-22/POR-00292. Galdera, etorkizuneko neurri fiskalen eta Nafarroako 2023rako Aurrekontu Orokorren proiektuaren helburu eta lehentasunei buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (14. or.).
- 10-22/POR-00293. Galdera, VW Navarrako enplegagarritasuna eta hornitzaileen parkeak Foru Komunitatearekin lotuta jarrai dezan bermatzeko neurriei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (14. or.).
- 10-22/POR-00259. Galdera, basogintzak gure erkidegoan duen papera bultzatzeko estrategiei buruzkoa. Galdera erretiratzea (15. or.).
- 10-22/POR-00272. Galdera, Tuterako Ospitalaren eta Tuterako osasun barrutiko osasun garraioaren gabeziari buruzkoa. Osoko Bilkuran izapidetzea (15. or.).

F saila:
GALDERAK

10-22/POR-00274. Galdera, etxeko langileen lan-erregulazio berriari buruzkoa.*NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea etxeko langileen lan-erregulazio berriari buruz Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Nuria Medina Santos andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak 2022ko irailaren 15eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak etxeko langileen lan-erregulazio berriari buruz?

Iruñean, 2022ko irailaren 7an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

10-22/POR-00275. Galdera, Altsasuko osasun etxeko osasun-arretari buruzkoa.*MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Altsasuko osasun etxeko osasun-arretari buruz María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Duela hainbat hilabetetik, Altsasuko jendea salatzen ari da profesional medikuen eza dagoela bertako osasun etxean, Sakanako zati handi bati ere zerbitzua ematen dion horretan.

Errepikatzen den egoera horren aurrean, zer konponbide ezarriko du Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak, bermatze aldera Altsasuko osasun etxean osasun laguntza egokia

izatea? Noizko aurreikusten du aipatu zentroak behar diren profesionalen % 100 edukitzea?

Iruñean, 2022ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

10-22/POR-00276. Galdera, Euskararen II. Plan Estrategikoari buruzkoa.

JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Euskararen II. Plan Estrategikoari buruz Jabi Arakama Urriaga jaunak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Jabi Arakama Urriaga jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da Euskararen II. Plan Estrategikoa?

Iruñean, 2022ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urriaga

10-22/POR-00277. Galdera, kontratu publiko ugari esleitzerakoan eta lan kontratazioan irregulartasunak egoteari buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, kontratu publiko ugari esleitzerakoan eta lan kontratazioan irregulartasunak egoteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak ahoz erantzun dezan:

Nola justifikatzen ditu Gobernuko lehendakariak kontratu publiko ugari esleitzerakoan eta lan kontratazioan izandako irregulartasunak, Kontuhartzaitzak urteko kontuen eta adostutako prozeduren gainean egindako auditoretza-txostenean agerian geratzen direnak?

Iruñean, 2022ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

10-22/POR-00278. Galdera, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuan foruzainen aparteko orduen kopurua murrizteko hartutako neurriei buruzkoa.

JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkeztutako galdera, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuan foruzainen aparteko orduen kopurua murrizteko hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (+) talde parlamentarioari atxikia dagoen José Suárez Benito jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehen lehendakariorde eta Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri hartu duzu, hartzen ari zara edo hartuko duzu foruzainen aparteko orduen kopurua murrizteko?

Iruñean, 2022ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

10-22/POR-00279. Galdera, osasungintzako itzarote-zerrendetako datu txarrei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea osasungintzako itzarote-zerrendetako datu txarrei buruz Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer egingen du Nafarroako Gobernuak osasungintzako itzarote-zerrendetako datu txarrei begira?

Iruñean, 2022ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

10-22/POR-00280. Galdera, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoari eta autogobernuari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoari eta autogobernuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko eledun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakari María Chivite Navascués andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Foru Hobekuntzaren 40. urteurrena betetzen den honetan, zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak hura betetzeari eta eraberritzeko beharrari buruz? Azken finean, zer ikuspegi du autogobernuaren etorkizunari buruz?

Iruñean, 2022ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

10-22/POR-00281. Galdera, Nafarroako estepako hegaztiak berreskuratu eta kontserbatzeko foru dekretuaren proiektuari buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako estepako hegaztiak berreskuratu eta kontserbatzeko foru dekretuaren proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak ahoz erantzun dezan.

Zer egingen duzu Nafarroako estepako hegaztiak berreskuratu eta kontserbatzeko foru dekretuaren proiektuarekin, "Nafarroako agroestepak" izeneko babes bereziko eremu bat (HBBE) deklaratu duen horrekin?

Iruñean, 2022ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

10-22/POR-00282. Galdera, klima-aldaketaren Herritar-batzarrari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea klima-aldaketaren Herritar-batzarrari buruz Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen duenaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak irailaren 15eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Klima-aldaketaren Herritar-batzarra arautzen duen agindua prestatzearen alde aurreko kontsulta publikoaren fasea hasita, zein dira Nafarroako Gobernuak egingen dituen hurrengo urratsak, hura eraginkorra izan dadin?

Iruñean, 2022ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

10-22/POR-00283. Galdera, energia-krisiaren konponbidean aurrera egiteko proposatzen diren neurriei eta helburuei buruzkoa.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, energia-krisiaren konponbidean aurrera egiteko proposatzen diren neurriei eta helburuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak irailaren 15eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Energia-krisia arazo larri bihurtu da eta gizarte-ko sektore guztiei —herritarrak, enpresak...— eragiten die. Horiek horrela, neurri gogor eta presakoak behar dira, krisiaren ondorioak arintzeko.

Neurri beharrezkoak maila globalean, Europako eta Espainiako esparruetan eta baita gure erkidegoan ere.

Orain arte hartutako neurriek, antza, ez dituzte eman bilatzen ziren emaitzak. Beraz, neurri berriak bilatu behar dira arazo sozial horri amaiera emateko, familien eta industriaren ekonomiari ere modu kezkarrian eragiten ari zaiolako.

Joan den abuztuaren 9an egindako Konferentzia Sektorialen autonomia-erkidego guztiek parte hartu zuten. Nafarroaren aldetik, hain zuzen ere Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren aldetik, proposamen sorta bat aurkeztu zen problematika horretan aurrerabidea egiteko.

Hori dela-eta, galdera hau egiten diogu Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariari, ahoz erantzun dezan:

Zein dira aurkeztutako neurriak eta epe labur, ertain eta luzean zer helburu lortu nahi da haiekin?

Iruñean, 2022ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

10-22/POR-00284. Galdera, ETB3 Nafarroa osoan hartzeari buruzkoa.*BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea ETB3 Nafarroa osoan hartzeari buruz Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakari-

tzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilari Javier Remírez Apesteguía jaunak Osoko Bilkuran erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak sinatutako aurrekontu-akordioan honako konpromiso hau jasotzen zen:

“ETB3 Nafarroa osoan hartzea.

Nafarroako Gobernuak behar diren ekimenak arinduko ditu eta bilatuko du ahalik eta lasterren, ahalik eta irtenbide teknikorik egokiena aurkitzea ETB3 eskualde guztietan hartzea ahalbidetzeko, bere eskumenaren esparruan eta gaian eskumena duten Estatuko erakundeekin elkarlanean”.

Zein dira Nafarroako Gobernuak aurten egindako urratsak eta zertan da konpromiso hori betetzea?

Iruñean, 2022ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

10-22/POR-00285. Galdera, Gobernuaren barne fiskalizatorako eta kontrolerako prozeduren funtzionamenduari buruzkoa.*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, Gobernuaren barne fiskalizatorako eta kontrolerako prozeduren funtzionamenduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen

Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Sodena, Albyn eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren arteko hitzarmenaren kargura erositako 1,7 milioi maskara biltegi batean daude utzirik, funts publikoetatik gutxienez ere 1,2 milioiko galerarekin. Zergatik uste du lehendakariak hori orain jakitea dela “Gobernuaren barne kontrol eta fiskalizatorako prozedurek funtzionatu izana”?

Iruñean, 2022ko irailaren 8an.

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

10-22/POR-00286. Galdera, 2023rako hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenari buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, 2023rako hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak ahoz erantzun diezaion eta 2022ko irailaren 15eko Osoko Bilkuraren gai zerrenda sar dadin.

Zer aurreikuspen du Nafarroako Gobernuak 2023rako hazkunde ekonomikoaren gainean?

Iruñean, 2022ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

10-22/POR-00287. Galdera, ikasturtearen hasieraren gaineko balorazioari buruzkoa.

JORGE AGUIRRE OVIEDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkeztutako galdera, ikasturtearen hasieraren gaineko balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Aguirre Oviedo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafar ikasleen ikasturtea hastean hainbat gai izan dira hizpide, besteak beste, eskola garraioa, Erljioko irakasleen egoera edo ikasleak bereizten dituzten ikastetxeak.

Zer balorazio egiten du Gobernuak ikasturtearen hasierari buruz arlo horietan guztietan?

Iruñean, 2022ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Jorge Aguirre Oviedo

10-22/POR-00288. Galdera, Hezkuntza Departamentuak Nafarroan 0tik 3 urtera arteko ikasleei kalitateko hezkuntza zerbitzua bermatzeko egiten dituen jarduketei buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuak Nafarroan 0tik 3 urtera arteko ikasleei kalitateko hezkuntza zerbitzua bermatzeko egiten dituen jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntzako kontseilariak uste al du haur hezkuntzako lehen zikloan darabiltzan jarduketak egokiak direla Nafarroan 0tik 3 urtera arteko ikasleei kalitateko hezkuntza zerbitzua bermatzeko?

Iruñean, 2022ko irailaren 8an.

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

10-22/POR-00289. Galdera, Foruzaingoari Trafikoa eskualdatzeko negoziazioei buruzkoa.

BLANCA REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Regúlez Álvarez andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Foruzaingoari Trafikoa eskualdatzeko negoziazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkezten du, lehen lehendakariorde eta Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Legegintzaldiaren amaieran sartuta, zertan dira Foruzaingoari Trafikoa eskualdatzeko negoziazioak?

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Blanca Regúlez Álvarez

10-22/POR-00290. Galdera, ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxe pribatuekiko ituntzeari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxe pribatuekiko ituntzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko María Luisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak ostegunean, 2022ko irailaren 15eko kontrolerako Osoko Bilkuran, ahoz erantzun dezan:

3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena.

1. artikuluko a bis) apartatuak honako hau dio:

«a bis) Ikasle guztientzako hezkuntzaren kalitatea, inolako diskriminaziorik gabe jaiotza, sexua, arraza, jatorri etniko edo geografikoa, desgaitasuna, adina, gaixotasuna, erlijioa edo sinesmenak, sexu-joera edo sexu-identitatea nahiz bestelako edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial direla-eta».

Ikastetxe publiko eta pribatuetako eskolatzeari buruzko 84. artikulua honako hau dio 1. eta 3. apartatuetan:

«1. Hezkuntza-administrazioek ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko aukera arautuko dute eta, horretarako, hezkuntzarako eskubidea, berdintasun-baldintzetan sartzeko aukera eta gurasoek edo tutoreek ikastetxea aukeratzeko askatasuna bermatuko dituzte. Araudi horren bidez, ikasleak arrazoi sozioekonomikoengatik edo bestelako arrazoiengatik bereiztea ekiditeko hartu beharreko neurriak ezarriko dira. Nolanahi ere, hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleak ikastetxeen artean era egokian eta orekatuan banatzea bilatuko da».

«3. Ez da inolaz ere diskriminaziorik egingen jaiotza, sexua, arraza, jatorri etniko edo geografikoa, desgaitasuna, adina, gaixotasuna, erlijioa edo sinesmenak, sexu-joera edo sexu-identitatea nahiz bestelako edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial direla-eta»

Hezkuntza Departamentuarekin hartutako konpromisoaren eta araudiaren aurka, zenbait ikastetxe sexuaren arabera bereizita dauzkate ikasleak eta irakasleak Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasgeletan.

Nafarroako Gobernuak, Parlamentu honek orain dela hamar urte onetsi zuen baino orain arte bete ez den lege bat baliatuta, erabaki du pixkanaka kentzea hezkuntza berezituaren zentro pribatuekiko itunak, goragoko maila duen lege organiko bati aurka eginez.

Arau horrek, edonola ere, ez litzuke babestuko batxilergoko taldeak.

Hezkuntza Departamentuak taldeak ituntzen al ditu ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxe pribatuetan? Zer mailatan? Hezkuntza Departamentuak, kasua bada, ituna kenduko al die ikasleak eta irakasleak sexuaren arabera bereizita dauzkaten ikastetxeei?

Iruñean, 2022ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: María Luisa de Simón Caballero

10-22/POR-00291. Galdera, egoera zaurgarrian dauden pertsonen inflazioa leuntzeko neurri buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, egoera zaurgarrian dauden pertsonen inflazioa leuntzeko neurri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, 2022ko irailaren 15eko Osoko Bilkuran erantzuteko:

Zer neurri dabil eta proposatzen du Gobernuak, inflazioaren eragina leuntze aldera pobrezia arriskuan dauden pertsonen, bereziki gastua biderkatzen den kolektiboen kasuan, esate baterako familia gurasobakarrekin?

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

10-22/POR-00292. Galdera, etorkizuneko neurri fiskalen eta Nafarroako 2023rako Aurrekontu Orokorren proiektuaren helburu eta lehentasunei buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, etorkizuneko neurri fiskalen eta Nafarroako 2023rako Aurrekontu Orokorren proiektuaren helburu eta lehentasunei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2022ko irailaren 15eko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Zer helburu eta lehentasunekin diseinatuko ditu Nafarroako Gobernuak etorkizuneko neurri fiskalak eta Nafarroako 2023rako Aurrekontu Orokorren proiektua?

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

10-22/POR-00293. Galdera, VW Navarrako enplegarritasuna eta hornitzaileen parkeak Foru Komunitatearekin lotuta jarrai dezan bermatzeko neurriei buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, VW Navarrako enplegarritasuna eta hornitzaileen parkeak Foru Komunitatearekin lotuta jarrai dezan bermatzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasan handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer egingen du Nafarroako Gobernuak bermatze aldera VW Navarrako enplegarritasuna eta hornitzaileen parkeak Foru Komunitatearekin lotuta jarraitzea?

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

10-22/POR-00259. Galdera, basogintzak gure erkidegoan duen papera bultzatzeko estrategiei buruzkoa.*GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Pablo Azcona Molinet jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera basogintzak gure erkidegoan duen papera bultzatzeko estrategiei buruzkoa

zen, eta 2022ko ekainaren 28ko 83. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/POR-00272. Galdera, Tuterako Ospitalaren eta Tuterako osasun barrutiko osasun garraioaren gabeziei buruzkoa.*OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Osoko Bilkuran izapidetu dadin Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko galdera, Tuterako Ospitalaren eta Tuterako osasun barrutiko osasun garraioaren gabeziei buruz-

koa. Galdera 2022ko irailaren 8ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

